

## **Zer dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektua funtziona dezan?**

Komunikazioaren bidez, talde lanaren bidez, hau da, kide batek ezin du eskaintza bat egin lankideei galdetu gabe; izan ere, baliteke ikaskideek ikusten ez duten zerbait ez ikustea. Ondo organizatzea eta kalitatearen eta prezioaren alde oso handia ez izatea.

Guretzat ere ezinbestekoa da bezeroen konfiantza lortzea eta, denborarekin, hornitzaile eta laguntzaile handiengana iritsi ahal izatea. Hala, hornitzaile eta iritzi desberdinekin, gure markaren kalitatea hobetzen joango gara, ezaguna izan dadin.

Ahal den neurrian, ideia ona litzateke beste arropa-lerro batzuei gomendatzeko moduko kontaktuak izatea eta industria horretan arrakasta izateko aholkuak ematea.